

Antxiñako fotografixia



San Juan kaleko arkua

Orain San Juan jaixak **Garagaltza** auzuan bakarrik egiten baditue be, sasue batian goi eta behe ospaketan zittuain, hau da, **San Juan auzuan** eta **San Juan kalian**, bixetan. Behian orain dala 30 bat urte itxi otzain fiestak antolaketari. San Juan kaleko gauzarik tipiko eta tradizionalena jaizetarako auzotarrak jasoten ebein arku dotoria izaten zan. **Kirriñeneti** zerrariaño egoten zan arkuori, untzaz eta loraz apainketan ebein eta urtero differentia izaten zan. Arkua moldaitteko lanak akabo ondoren, fotografixia ataraten ebein sarritan. Urte desberdinetauk ikusi ahal izan dittu; hau baiño zertxobaitz zaharragua be bai, baiña banaka batzuk bakarrik ezauketaen gittalako, beste hau aukeratu dogu. Honek be ixa 70 urte izango dittu; Primo de Rivera-ren garaikua edo, izango da.

Goitik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dira ezagutu ahal izan dittugunak:

- Goixenian: **Klaudio Urtaza**, *Kirriñena*; X.X.; X.X.
- Beheratxuago: X.X.; **Juan Elortza**, *Txinparta*;
- 3. illaran: X.X.; **Frantziska Ezkibel**, **Doroteo Urtaza**, *Kirrin*; **Jabiera Ezkibel**;
- 4. illaran: **Juan Murua**, *Enterraduria*; **Dominika Etxeberria**, *Azpeitixeneko ama*; **Mariano Bikuña**; aldameneko muti-

kua, **Felix Bikuña**; honen atzian **Teodora Alzelai**, *Azpeitixeneko amandria*; **Maria Kortabarria**, *Kirriñeneko ama*; **Roman Dorronsoro**, *Azpeitixeneko aitta*; bere aurreko neskatalia, **Dolores Urtaza**, *Kirriñena*; mutikua, X.X.; **Leandro Elortza**, *Txinparta*; **Tomas Odriozola**, *Enterraduria*; X.X.; **Esteban Kortabarria**, *Gorduena*; *Bitoriana Billar*; **Mariano Elortza**, Kurpide baserriku baina San Juan kalian bizi zana; **Juan Elortza**, *Txinpartaneko aitta*; **Frantzisko Aiestui**, *Otxiena*; **Bizenta Agirrebengoa**, *Txinpartaneko ama*; **Teodora Zugasti**, *Otxueneko ama*; **Maria Antonia**, *Azpeitixeneko amandria zaharra*; **Anastasia Lizarralde** (?), *Enterradorieneko ama*; azkenengo honen besuetan **Bittor Murua**; **Felix mantxua**.

- Behoko illaran: neskataltxua, **Pilar Bikuña**; **Jesusa Ezkibel**; umia, X.X.; **Migel Ezkibel**; **Eduardo Murua**, *Enterraduria*-neko arotza; umia, X.X.; **Meterio Aiestui**, *Otxuena*; **Ximon Dorronsoro**, *Metalgua*; bere eskumako neskatalia, **Bittori Urtaza**, *Kirriñena*; **Maria Kortabarria**, *Gorduena*; gainerako umiak ezezagunak.

JE

Argazkixa Felisa Dorronsorok itxi dosku. Eskerrak auzotarrok ezauketaen lagundu doskuen danoiri.

Pintxo bereziak. Kafeak

IZARRAITZ taberna

Giro ezin hobea

Tfnoak: 78 22 47/ 71 61 39 (Etxeko) OÑATI

TXINTXURRETA ELEKTRETXEA

**Elektra instalazioak
eta iluminazioa**

Kale Barria, 5. Tfnoa: 78 01 54 / 78 11 74 OÑATI